# AURREZ HITZ BI

José Miguel de Barandiarán

Cuadernos de Sección. Antropología - Etnografía 8. (1991), p. 11-15.
ISSN 0212-3207
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

# Aurrez hitz bi

Euskal-mitoen alkorra aski zabala da. Han-hemenka hor ageri diran pirrintu argien batzuek aipatzea egoki dala uste dut.

Mito edo jinkoekiko ipuiak, nahizta berak iritzi zeatzgabeak izan, esaunda berala bederen, zerbait dira. Esaunda sinestuak, egiak balira lez edota pozeragilletzat erabiliak.

Euskalherriko mito-sinismen eta ipuien esoinean zenbait iratxo edo jinkoaizun ageri dira. Hauetako ainitz ihizien idurikoak: zaldi, zezen, ahuntz, akari, basurde, iraunsuge, arranbeltz, e.a., harpeetan edo lurpeko eremuetan bizi diranak.

Harpeetan bizi eta aidean nahiz odeietan iñoiz dabilena da jinkosa bat, Mari izenekoa. Honen bizileku berala izenta ohi Anboto'ko harpe bat, Aketegi, Muru, Agamuenda, Sasterri, Txindoki, Aldure, e.a.'n ere dagoena:

Diotenez, askok ikusi omen dute Mari emakume eder eta soin egokiko baten idurian; baita aidean, sutagar

darion emakume baten itxuran ere. Batzuetan berriz ikizi baten (zaldi, txekor, ahari, akerr) edota suzko illargi erdiaren antzean, suzko zuaitz batenean, airebalarenean, e.a.

Bera gurtzen dutenak saritzen ditu, heuren lurrak euriz eta eguzkiz ongarritzen ditu; begitan dituanak harri-jasaz edo beste era batez zigorkatzen ditu.

Bere laguntzaile ditu lamin, sorgin eta iratxo-talde haundiak. Bera eta bereak nola bizi dira? Bada esaera <u>ezagun</u> eta <u>baiagan</u> dutela heuren arkurria.

Bere senar <u>Sugaar</u> iñoiz aidean agertu ohi da suzko igitai edo illargi erdiaren itxuran. Leizeetan bizitzen da: Ataun'go <u>Agamunda</u>'n eta <u>Sugaarzulo</u>'n, <u>Odelem</u>, Balzola'n, e.a. Odeietan biltzen omen da bere andre <u>Mari</u>'kin. Hauen semea omen zan Bizkai'ko lehenengo jauna, <u>Jaun Zuria</u> izenekoa.

Beste iratxo edo jinkosizunak ditugu hauek: <u>Gaueko</u>, <u>Gauargi</u>, <u>Etxajaun</u>, <u>Basajaun</u>, <u>Ujanko</u> eta bildurgarri diran <u>Late</u>, <u>Zorto</u>, <u>Inguma</u> eta <u>Gaizkina</u>.

Iratxo-mota bat da <u>Lamina</u> izena duana. Gizakien irudikoa bera; bainan hauetako batzuek oilo-atzaparrenak bezelakoak dituzte beren oinak; beste batzuek ahatearenen antzekoak; zenbaitek berriz ahuntz-zangararen itxurakoak.

Lamina batzuek harpeetan bizi dira; beste batzuek berriz ittoirrietan eta urgedietan.

Esan ohi danez, laminak iruleak omen dira eta gauez ibaitan jantziak edo oihalak garbitzen ari ohi diranak.

Opari bat — jana edo edaria — ematen ba diezu, berak zure lan edo beharretan lagunduko dizute noski.

Laminen arkiak <u>Maideak</u> dira, trikuarrien eta harres-

pilen egileak. Mairi Maide'ren beste izen bat dala dirudi: bien egintzak berdiñak baitira.

Urtzi da odei urdina. Ortzi, Ost eta Ostri dira beraren beste izenak. Berari eskainia da Ortzeguna edo Osteguna. Ostebia da udaberriko euri ongarria, ustez eta gaincho iratxoak bialia dana.

—Ekhia edo Eguzkia jinko bezala ageri da esaunda batzuetan. Amandrea deitzen diote zenbait tokitan: Eguzki amandrea la-joia bere amangana, biar etorriko da denpora ona ba-da. Hala diote arratsaldean, itxasgorrietan edo sartaldean sartzen dalarik. Amagana, Lurbirara, joaten dala uste dute eta berari agurrak bialtzen dizkiote. Beraz Eguzkia Lurbiraren alaba.

Illargia ere jinkoizun bezala ageri zaigu zenbait sinismen eta esakeretan. Mendien gainean agertzen danean, esan ohi diote: Illargi amandrea, zeruan ze berri? Zeruan berri onak orain eta beti. Illargiaren ama, Eguzkiarena bezala, Lurbira omen da Mañaria'n diotenez.

Ostirala Illargiari eskainitako eguna da. Illargiaren gorapenean edo beherapenean egin behar diran egintzak, ostiralean egitea berdin omen da.

Hara hor euskaldunen mito-bilduma ezagutzeko edo ikasten asteko zenbait gai edo horien laburpen bat. Hortarako egokia izanen ahal da.

Barandiaran'go Joxemiel